

# Mugimenduzko ekintzak ingeleseztan eta euskaraz, Sarrionandiaren itzulpen baten azterketatik abiatuta

Aiora Jaka Irizar

Itzultzailea, EHUko doktoretza-ikaslea

Lan honetan S. T. Coleridge-ren *The Rime of the Ancient Mariner* ingelesezko poemaren eta Joseba Sarrionandiaren euskarazko itzulpenaren agertzen diren mugimenduzko ekintzak aztertu dira, bi hizkuntza horien lexikalizazio-ereduak alderatzeko. Talmy-k (1991, 2000) eta Slobin-ek (1991, 1996a, 1996b, 2000, 2004, 2005) proposatutako banaketari jarraituz, euskara aditz-hizkuntza dela frogatu da, baina Bideari buruzko informazioari dagokionez, satellite-hizkuntzek bezala jokatzeko duela (Ibarretxe-Antuñano, 2004a). Tipologikoki desberdinak diren bi hizkuntza horien arteko itzulpenaren zer gertatzen den aztertu nahian, Coleridge-ren poema ingelesetik (satellite-hizkuntza) euskarara (aditz-hizkuntza) itzultzean Sarrionandiak zein estrategia erabili dituen aztertu da.

**GAKO-HITZAK:** Lexikalizazio-ereduak · Mugimenduzko aditzak · Satellite-hizkuntzak · Aditz-hizkuntzak.

This article analyzes the verbs of motion that appear in S. T. Coleridge's English poem *The Rime of the Ancient Mariner* and its Basque translation by Joseba Sarrionandia, with a view to compare the lexicalization patterns of those two languages. Following the classification proposed by Talmy (1991, 2000) and Slobin (1991, 1996a, 1996b, 2000, 2004, 2005), it has been proved that Basque is a verb framed language, although it is closer to satellite framed languages as far as information about Path is concerned (Ibarretxe-Antuñano 2004a). In order to see what happens in the translation between those two typologically different languages, we analyzed the strategies used by Sarrionandia when translating Coleridge's poem from English (satellite framed) into Basque (verb framed).

**KEY WORDS:** Lexicalization patterns · Verbs of motion · Satellite framed languages · Verb framed languages.

*Jasotze-data:* 2009-02-18. *Onartze-data:* 2009-02-20.

## 1. Lexikalizazio-ereduak mugimenduzko ekintzetan

Mugimenduaren kontzeptua munduko hizkuntza guztietan agertzen da, baina mugimendua adierazteko moduak desberdinak dira hizkuntza bakoitzean, hots, hizkuntza bakoitzak «lexikalizazio-eredu» desberdinak ditu<sup>1</sup>. Hori dela eta, lexikalizazio-tipologia desberdina duten hizkuntzen diskurtsoa eta estilo erretorikoa desberdinak dira mugimenduzko ekintzen adierazpenean. Desberdintasun horiek zailtasun nabarmenak eragin ohi dizkiete itzultzaileei, sorburu-hizkuntzaren estilo erretorikoa xede-hizkuntzarenera egokitzean aldaketa edo egokitzapen batzuk egin beharrean aurkitzen baitira. Orain arte egindako ikerketek erakutsi dutenez, tipologikoki desberdinak diren bi hizkuntzaren arteko itzulpenetan gertatzen diren egokitzapen nagusiak, mugimenduzko ekintzei dagokienez, Bideari nahiz Moduari buruzko informazioa galtzea edo gehitzea dira. Lan honetan, tipologikoki desberdinak diren bi hizkuntza alderatuko ditugu, ingelesa eta euskara, eta S. T. Coleridge-ren *The Rime of the Ancient Mariner* poema (1798) eta Joseba Sarrionandiak egindako euskarazko itzulpena (*Marinel zaharraren balada*, 1995, Pamiela) aztertuz, mugimenduzko ekintzen itzulpenean gertatzen diren aldaketak definituko ditugu. Ingeleseko testuaren estilo erretorikoa euskararen diskurtsora egokitzeko Sarrionandiak zein estrategia erabili dituen ikusiz, euskarak mugimenduzko ekintzak lexikalizatzeko dituen ahalmen eta aukerak hobeto ezagutzea espero dugu.

### 1.1. Lexikalizazio-ereduak (Talmy, Slobin)

Leonard Talmy-k (1985, 1991, 2000), hizkuntzaren baitan esanahiaren eta azaleko adierazpidearen arteko harremana ikertzean, bi elementu mota bereizten ditu. Batetik, «elementu semantikoak», hots, esanahiari dagozkionak; adibidez Bidea, Modua, edo Oinarria. Bestetik, «azaleko elementuak», edo esanahia antolatzekeo hizkuntza bakoitzak erabiltzen dituen tresna linguistikoak; esaterako aditza, mendeko perpausa, satelitea eta abar. Elementu semantikoen eta azaleko elementuen arteko harremana ez da banan-banakoa, hau da, elementu semantiko bati ez dagokio beti azaleko elementu bakar bat eta alderantziz. Kasu batzuetan, hainbat elementu semantiko azaleko elementu bakar batekin adieraz daitezke; beste batzuetan, elementu semantiko bakar bat adierazteko azaleko elementu bat baino gehiago erabili behar dira. Elementu semantikoen eta azaleko elementuen arteko harremanak aldatu egiten dira hizkuntza batetik bestera. Hizkuntza bakoitzak ekintza horiek nola lexikalizatzen dituen ikusteko, Talmyk mugimenduzko ekintzak aztertzeari ekin zion, mugimendua munduko hizkuntza guztietan ageri den kontzeptua baita; hizkuntza bakoitzak mugimendua adierazteko elementu linguistiko desberdinak erabiltzen dituen arren, eta nahiz eta hizkuntza guztietan ez diren mugimenduaren alderdi berberak lexikalizatzen, munduko hizkuntza guztietan aurkitzen dira mugimendua adierazteko osagaiak. Mugimenduzko ekintzen azterketatik hizkuntza bakoitzaren «lexikalizazio-ereduak» definitzeari ekin zion Talmyk (2000).

---

1. Lan hau Eusko Jaurlaritzaren finantziarioari esker egin ahal izan da, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ikertzaileak prestatzeko eta hobetzeko 2007-2008 ikasturtean emandako bekaren bidez. Esker ona agertu behar diot Iraide Ibarretxe-Antuñano irakasleari ere, lan hau arretaz irakurri eta zuzendu duelako.

Mugimenduzko ekintza honela definitzen du Talmyk: « a situation containing movement or maintenance of a stationary location » (2000b: 25). Mugimenduzko ekintzetan oinarriko sei elementu semantiko definitzen ditu:

Batetik, ekintzaren «barreneko» osagaiak genituzke:

- Irudia: mugitzen den objektua.
- Oinarria: objektua zeren gainean mugitzen den.

Eta bestetik, berriz, ekintzaren «kanpoko» edo ekintzarekin lotutako osagaiak:

- Bidea: objektuak bere mugimenduan egiten duen ibilbidea.
- Mugimendua: mugitzearen ekintza bera.
- Modua: mugitzeko modua.
- Kausa: mugimendua eragiten duena.

Ingelesez, esate baterako, honela aztertuko genuke (1) adibidea:

(1)	<i>The pencil</i>	<i>rolled</i>	<i>off</i>	<i>the table</i>
	Irudia	Mugimendua	Bidea	Oinarria
		Modua		

Hizkuntza guztietan, ordea, elementu semantikoak ez dira modu berean lexikalizatzen, hau da, hizkuntza guztiek ez dituzte azaleko elementu berberak erabiltzen elementu semantikoak hitzez adierazteko. Talmyk, munduko hizkuntzak harreman horren arabera sailkatu nahian, dikotomia tipologiko bat proposatzen du, mugimenduzko ekintzen osagai nagusia (Bidea) adierazteko erabiltzen den azaleko elementua oinarri hartuta: batetik satellite-hizkuntzak genituzke, eta bestetik aditz-hizkuntzak.

Aditz-hizkuntzetan, ekintza baten osagai nagusia (Bidea) aditzean adierazten da; satellite-hizkuntzetan, aldiz, satellitean. Satellitea izen-sintagma edo preposizio-sintagma ez den eta aditzetik kanpo aurkitzen den edozein osagai da, aditz-erroarekiko mendekotasun-harremanean dagoena<sup>2</sup>. Horrela, Dan Slobinek (1996) ondo erakutsi duen bezala, ingelesa satellite-hizkuntza da, Bidea satellitearen bidez adierazten duelako; gaztelania, aldiz, aditz-hizkuntza da, Bidea aditzaren bidez adierazten duelako. Ingeleseko mugimenduzko aditzetan Mugimendua eta Modua adierazten dira, eta satellitean, berriz, esan dugun bezala, Bidea. Gaztelaniaz, berriz, aditzean Bidea eta Mugimendua adierazten dira eta beste aparteko elementu batean, aldiz, Modua.

---

2.Talmyk honela definitzen du satellitearen kontzeptu arazotsua: « It is the grammatical category of any constituent other than a noun-phrase or prepositional-phrase complement that is in a sister relation to the verb root. It relates to the verb root as a dependent to a head. The satellite, which can be either a bound affix or a free word, is thus intended to encompass all of the following grammatical forms, which traditionally have been largely treated independently of each other: English verb particles, German separable and inseparable verb prefixes, Latin or Russian verb prefixes, Chinese verb complements, Lahu nonhead “versatile verbs” (see Matisoff 1973), Caddo incorporated nouns, and Atsugewi polysynthetic affixes around the verb root » (Talmy 2000: 102).

(2)	ADITZEAN	SATELITEAN
<u>Satelite-hizkuntzak:</u>	Mugimendua	Bidea
(Ingelesa)	Modua	
<i>Soon the bird</i>	<i>flew</i>	<i>out</i>
(3)	ADITZEAN	APARTEKO ELEMENTUAN
<u>Aditz-hizkuntzak:</u>	Mugimendua	Modua
(Gaztelania)	Bidea	
<i>Pronto el pájaro</i>	<i>salió</i>	<i>volando</i>

Talmyren ondorioetan oinarrituz, Dan Slobinek (1991, 1996a, 1996b, 1997, 2004) hainbat ikerketa egin zituen ingelesaren eta gaztelaniaren lexikalizazio-ereduak hobeto aztertzeko, eta ondorio hauetara iritsi zen:

1. Satelite-hizkuntzek Moduari buruzko informazio askoz ere gehiago adierazten dute aditz-hizkuntzek baino. Izan ere, satelite-hizkuntzek aditzean bertan dute Moduari buruzko informazioa; aditz-hizkuntzek, ordea, aparteko elementu bat gehitu behar izaten diote askotan aditzari Modua adierazteko, eta maiz ez denez beharrezkotzat jotzen Modua zehaztea, informazio hori ez da adierazten.
2. Satelite-hizkuntzek Bideari buruzko xehetasun asko ematen dituzte, eta mugimendua oso modu dinamikoan deskribatzen dute. Aditz-hizkuntzetan, aldiz, ez da Bideari buruzko hainbeste xehetasun eskaintzen, eta mugimenduari buruzko deskribapenak estatikoagoak dira. Arrazoi nagusia da aditz-hizkuntzek Bideari buruzko elementu bakoitzeko aditz bat erabiltzeko joera dutela.

## 1.2. Talmyren eta Slobinen ereduak euskarari aplikatuta

Talmyren ereduak euskarari aplikatuz gero, euskara aditz-hizkuntza dela ondorioztatuko dugu; izan ere, Mugimendua eta Bidea aditzean biltzen dira eta Modua, aldiz, aparteko elementu batean, (4) adibidean ikus daitekeenez.

(4)	ADITZEAN	APARTEKO ELEMENTUAN
<u>Aditz-hizkuntzak:</u>	Mugimendua, Bidea	Modua
<i>Txoria laster</i>	<i>atera zen</i>	<i>hegan</i>

Baina Talmyren ikerketetan oinarrituz Slobinek atera zituen ondorioak euskarari aplikatzerakoan, hainbat arazorekin egiten dugu topo, Iraide Ibarretxe-Antuñanok hainbat artikulutan frogatu duen bezala (Ibarretxe-Antuñano, 2004a; Prentsan).

Lehenengo ondorioari dagokionez, euskarak gaztelaniaren antzera jokatzen du, alegia, Moduari buruzko xehetasun gutxiago ematen ditu ingelesa bezalako satelite-hizkuntzek baino. Bigarren ondorioari dagokionez, ordea, euskara salbuespena da: Bideari buruzko informazioa adieraztean ingelesaren antzera jokatzen du, eta ez gaztelaniaren antzera. Bere ezaugarri morfosintaktikoak direla eta, posible da euskaraz aditz bakarrari Bideari buruzko elementu bat baino gehiago

lotzea, (5) adibidean ikus daitekeenez. Gaztelaniaz, berriz, (6) adibidea bezalakoak arraroak dira, aditz bakoitzari Bideari buruzko elementu bakarra lotzeko joera baitute, oro har, aditz-hizkuntzek. Gaztelaniaz, beraz, (7) adibidea bezalakoak dira arruntagoak, Bidea adierazten duen osagai bakoitzeko aditz bat ageri dela.

(5)	<i>Amildegitik</i> Bidea	<i>behera</i> Bidea	<i>zelai batera</i> Bidea	<i>erori zen.</i> Bidea Mugimendua
(6)	<i>Se cayó</i> Bidea Mugimendua	<i>desde un precipicio</i> Bidea	<i>abajo</i> Bidea	<i>a una planicie.</i> Bidea
(7)	<i>Se cayó</i> Bidea Mugimendua	<i>desde un precipicio</i> Bidea	<i>y aterrizó</i> Bidea	<i>en una planicie.</i> Bidea Mugimendua

## 2. Mugimenduzko ekintzak itzultzen

Itzulpenak material egokia izan daitezke mugimenduzko ekintzen lexikalizazioa hizkuntza desberdinetan nola gauzatzen den ikusteko. Slobinek, hizkuntza desberdinen estilo erretorikoa aztertu nahian, mugimenduzko ekintzaz jositako ingelesezko testu bat hartu zuen, Tolkien-en *The Hobbit* (1937) liburuaren 6. kapitulua, eta testu horren hainbat itzulpen alderatu zituen, satelite-hizkuntzek eta aditz-hizkuntzek mugimenduzko ekintzak nola lexikalizatzen dituzten ikusteko.

Azterketa horretatik zenbait ondorio atera zituen Slobinek (2005). Batetik, aditz-hizkuntzetara itzultzen duten itzultzaileek jatorrizko ingelesezko testuan baino Moduzko aditz gutxiago erabiltzen dituztela. Izan ere, ingelesa bezalako satelite-hizkuntzetan Moduak garrantzi handia du, eta elementu semantiko hori aditzean bertan agertzen denez, lexiko ikaragarri zabala dute Moduzko aditzei dagokienez. Aditz-hizkuntzetan, aldiz, Moduak ez du hainbesteko garrantzirik, eta Moduzko aditzak askoz ere urriagoak dira. Hori dela eta, eta Slobinen ikerketak argi erakusten duenez, ingelesetik aditz-hizkuntzetara egindako itzulpenetan Moduzko aditz askoz ere gutxiago ageri da jatorrizko testuan baino: 26 Moduzko aditz desberdin jatorrizkoan eta 17,2 batez beste aditz-hizkuntzetara egindako itzulpenetan. Satelite-hizkuntzetara egindako itzulpenetan Moduzko aditzen kopurua ia berdin mantentzen da: 25,6 batez beste (Slobin, 2005: 123).

Aditz-hizkuntzetako itzultzaileek, beraz, aditzaren bidez ez, baizik eta beste elementu formal batzuen bidez adierazi behar izaten dute Modua, esaterako adberbioekin edota preposizio-osagaiekin. *The Hobbit*-en itzulpenen azterketatik ondorioztatu ahal izan denez, ordea, itzulpen askotan Moduari buruzko informazioa galdu egiten da. Jatorrizko ingelesezkoan Moduari buruzko osagaiak 64 baziren, satelite-hizkuntzetan kopurua berdintsu mantentzen dela ikusten da (62), baina aditz-hizkuntzetan nabarmen jaisten dela (52) (Slobin, 2005: 123).

Bideari dagokionez, Slobinen ikerketak beste ondorio interesgarri bat eskaintzen du. Aditz batek har ditzakeen Bidezko osagaien kopurua desberdina izan ohi da satellite-hizkuntzetan eta aditz-hizkuntzetan. Jatorrizko ingelesezko testuan, baita satellite-hizkuntzetara egindako itzulpen gehienetan ere, aditz bakar batek Bidezko osagai bat baino gehiago hartzen ditu askotan. Aditz-hizkuntzetara egindako itzulpenetan, aldiz, Bidezko osagai bakoitzarentzat aditz bat ezartzeko joera nabari da. (8) adibideko ingelesezko esaldian aditz bakarra ageri da Bidezko hiru osagairekin. (9) adibidean, berriz, frantsesezko itzultzaileak Bidezko osagai bakoitzarentzat aditz bat txertatzen du.

(8) *He still wandered on, out of the little high valley, over its edge, and down the slopes beyond.*

(9) *Il continua d'avancer au hasard, sortit du haut vallon, en franchit le bord et descendit la pente au-delà.*

Bideari buruzko informazioa banatzeko joerari dagokionez, euskara salbuespena dela aipatu dugu gorago. Halaxe ikusten da Ibarretxe-Antuñanok egindako zenbait ikerketatan (2003, 2004b). (10) adibidean, *The Hobbit*-en 6. kapituluko esaldi baten itzulpena ageri da, Ibarretxe-Antuñanoren lan batetik hartua (2003: 161). Argi ikusten da euskarak ingelesak bezala joka dezakeela Bideari buruzko espresioekin, aditz bati bat baino gehiago lotuz.

(10) *Bera oraindik noraezean zebilen, goiko bailara txikitik kanpo, bere mugaz gain eta bestaldeko aldapan behera.*

### 3. Mugimenduzko ekintzak Sarrionandiaren itzulpenean

Mugimenduzko ekintzen lexikalizazioari dagokionez euskarak nola jokutzen duen ikusteko, eta satellite-hizkuntza batean idatzitako testu bat euskarara itzultzean itzultzaileek topatzen dituzten oztopoei nola aurre egiten zaien aztertzeko, S. T. Coleridge-ren *The Rime of the Ancient Mariner* (1798) poema hartu dugu batetik, eta bestetik *Marinel zaharraren balada* (1995), Joseba Sarrionandiak egindako euskarazko itzulpena. Orain arte ikusitako ikerketetan oinarrituz, hainbat hipotesi atera daitezke. Batetik, euskara aditz-hizkuntza dela onartzen badugu, litekeena da euskarazko itzulpenean ingelesezko bertsioan baino mugimenduzko aditz gutxiago topatzea, aditz-hizkuntzetan mugimenduari buruzko deskribapenak satellite-hizkuntzetan baino estatikoagoak izaten baitira. Bestalde, ingelesezko bertsioan mugimenduzko aditzen artean gehienak Moduzko aditzak izango dira, satellite-hizkuntzetan aditzak biltzen baitu gehienetan Moduari buruzko informazioa; eta euskarazko bertsioan, berriz, Bidea adierazten duten aditzak izango dira nagusi, aditz-hizkuntzetan Bidea izaten baita aditz nagusian biltzen den informazioa. Ziur asko, beraz, euskal itzulpenean Moduari buruzko informazioa galdu egingo da, eta Bideari buruzkoa, berriz, mantendu.

Hipotesi hauek betetzen ote diren ikusteko, Coleridge-ren poeman eta bere euskarazko itzulpenean agertzen ziren mugimenduzko aditz guztiak aztertu eta lau aditz-kategoriatan sailkatu ditugu, bai euskaraz eta bai ingelesez: Modua adierazten dutenak (esaterako *walk* edo *ibili*), Bidea adierazten dutenak (*approach* edo *hurbildu*), Jarrera adierazten dutenak (*kneel* edo *belaunikatu*) eta Neutroak (*go* edo *joan*). 1. taulan ikus daitezke ateratako ondorioak.

	INGELESEZ	EUSKARAZ
MODUA	blow, burst, chase, climb, cause to drive, dance, dart, dip, drag, drift, drip, drive, flee, fly, gush, hurry about, lag, make a bound, make blow, make drive, pace, pour down, push, rush out, sail, shoot off, sink, slide, smite, spin, steer through, step, stir, spring up, swim, tack, tread, walk, walk round (39)	aldegin, arrastatu, astindu, bultzatu, dantzan egin, hegaldatu, hegatsez egin, ibilerazi, ibili, igeri egin, isuri, jario, jauzia eman, jirabiraka ari, murgildu, nabegatu, paseatu, ubildu (18)
BIDEA	abide, approach, bring, come, come back, come out, come through, come up, cross, detain, drop, drop down, enter, fall, fall down, fall off, follow, guide, go down, go up, leave, near, pass, pass by, pursue, reach, rear, return, <u>rise</u> <sup>3</sup> , stop, slope down, travel, turn, <u>uprise</u> (33)	abiatu, aideratu, ailegatu, aldendu, <u>altzatu</u> , atera, aurrera egin, buelta eman, bueltatu, ekarri, eraman, erori, etorri, geldierazi, geratu, gidatu, heldu, hurbildu, hurrindu, igon, inguratu, irten, itzuli, jarraitu, jarri, <u>jeiki</u> , pasatu, sartu, segitu (29)
JARRERA	bend, kneel, lie, perch, <u>rise</u> , sit, stand, strew, <u>uprise</u> (9)	<u>altzatu</u> , belaunikatu, eseri, etzan, <u>jeiki</u> , makurtu, pausatu, zutitu (9)
NEUTROAK	go, move (2)	egon, joan, mugitu (3)
Guztira	83	59

**1. taula. Coleridge-ren poeman eta Sarrionandiaren itzulpenean ageri diren aditzak, kategoriaka sailkatuta.**

3. Taula honetan azpimarratuta adierazi ditugu bi aldiz agertu diren aditzak:

rise<sup>1</sup>: «rise» aditza BIDEZKO aditz bezala sailkatu dugu mugitzen den irudia leku batetik bestera desplazatzen denean, hots, «move upwards» zentzua duenean («to come or go upwards; to reach a higher level or position», *Oxford Advanced Learner's Dictionary*). Honako kasu hauetan, beraz:

*The Sun now rose upon the right (p. 32)*

*Sweet sound rose slowly through their mouths (p. 82)*

rise<sup>2</sup>: Beste kasu batzuetan, ordea, «rise» aditza JARRERAZKO aditza iruditu zaigu, mugitzen den irudia ez baita desplazatzen, soilik jarreraz aldatzen da, «get up» zentzua du («to get up from a lying, sitting or kneeling position», *Oxford Advanced Learner's Dictionary*). Hori gertatzen da kasu hauetan:

*To have seen those dead men rise. (p. 82)*

*A sadder and a wiser man, He rose the morrow morn. (p. 138)*

uprise<sup>1</sup>: Gauza bera gertatzen da «uprise» aditzarekin. Batzuetan BIDEZKO aditz bezala sailkatu dugu:

*The glorious Sun uprist: (p. 36)*

uprise<sup>2</sup>: Beste batzuetan JARRERAZKO aditz bezala:

*They groaned, they stirred, they all uprose, (p. 82)*

jeiki<sup>1</sup>: «jeiki» aditza BIDEZKO aditz bezala sailkatu dugu kasu honetan:

*Eguzkia loriatsu jeikitzen zen: (p. 39)*

jeiki<sup>2</sup>: Eta beste hauetan, berriz, JARRERAZKO aditz bezala:

*Intziri egin zuten, mogitu ziren, jeiki ziren, (85. or.)*

*Gizon hil haik jeikitzen ikustea. (85. or.)*

*Hurrengo goizean tristeago Eta jakintsuago jeiki zen. (138. or.)*

Aditz kopuruak aztertutakoan, hasieran emandako hipotesiak betetzen direla ikusten dugu: ingelesez euskaraz baino mugimenduzko aditz gehiago daude (83 ingelesez eta 59 euskaraz). Ingelesaren kasuan, aditz gehienak Moduzko aditzak dira (39). Euskaraz, aldiz, Bidea adierazten duten aditzak dira ugarienak (29), alde handiaz gainera.

Euskaraz Bidea adierazten duten aditzak hainbeste izatearen arrazoia, Ibarretxe-Antuñanok (Prentsan: 12-13) iradokitzen duenez, euskarak aditzak sortzeko dituen modu ugarietan datza. Modu horiei esker, mugimenduzko ekintza bat modu askotara deskriba daiteke euskaraz: aditz simple batez (*etorri, ibili*), aditz elkartu batez (*igeri egin, buelta eman*), aditz eratorri batez (*aideratu, inguratu*), sinonimoen bidez (*atera, irten*) eta inguruko hizkuntzetatik hartutako maileguen bidez (*ailegatu, segitu*).

Modua adierazten duten aditzak nabarmen gutxiago dira (18).

Azkenik, beste bi kategorietako aditzak (Jarrera adierazten dutenak eta Neutroak) askoz ere urriagoak dira bi hizkuntzetan, eta kasu honetan ez dago diferentzia handirik: bai ingelesez eta bai euskaraz 9na Jarrerazko aditz aurkitu ditugu, eta Neutroak ingelesez 2 dira eta euskaraz 3.

Aditz kopuruen eta aditz-kategorien artean hainbesteko desberdintasunak egon badira, itzultzaileak zenbait egokitzen egin dituelako izan da. Jatorrizko hizkuntzan agertzen ziren formaren eta funtzioaren arteko harremanak xede-hizkuntzaren estilo erretorikora egokitzean, aldaketa batzuk ezinbestekoak izaten dira, batez ere satellite-hizkuntza batetik aditz-hizkuntza batera itzultzean.

Slobinek bere ikerketetan erakutsi duenez (2005), mugimenduzko ekintzak ingelesetik gaztelaniara itzultzean hainbat estrategia erabili ohi dituzte itzultzaileek Moduari eta Bideari buruzko informazioa antolatzeke. Sarrionandiak ingelesetik euskarara aldatutako testuan ere aurkitu ditugu estrategia horiek. Jarraian, beraz, estrategia bakoitza definituko dugu, Coleridge-ren poeman eta Sarrionandiaren itzulpenean aurkitutako adibideekin.

Moduari buruzko informazioari dagokionez, Slobinek hiru estrategia proposatzen ditu<sup>4</sup>:

**M1 estrategia:** Moduari buruzko informazioaren bat galtzea. Adb.:

(11) *And ice, mast-high, came floating by [...] (22)*

Eta uretan masten alturako izotza [...] heltzen zen (22)<sup>5</sup>

---

4. Estrategien izenentarako erabilitako hizkiak ingelesezko hitzetatik hartu ditugu, orain arteko ikerketa gehienak hizkuntza horretan egin direnez, terminologia berbera mantentzea erabaki baitugu. Beraz, M erabili dugu Modua (*Manner*) adierazteko, P Bidea (*Path*) adierazteko, Pos Jarrera (*Posture*) adierazteko eta N Neutroak (*Neutral*) adierazteko. Arrazoi beragatik, 3. taulan ere ingelesezko terminologia mantendu dugu.

5. Parentesi arteko zenbakiak orrialdea adierazten du. Bi bertsioak, euskarazkoa eta ingelesezkoa, Joseba Sarrionandiaren itzulpenaren argitalpen elebidunetik hartu dira: *Marinel zaharraren balada. The rime of the ancient mariner*, 1995, Pamiela.



**M2 estrategia:** Moduari buruzko informazio guztia itzultzea (aditz berbera erabiliz edota beste elementu batekin konpentsatuz). Adb.:

- (12) *And round and round it flew (120)*  
Eta hegatsez egin zuen inguru biraka (120)

**M3 estrategia:** Modua adierazten duen aditza Bidea adierazten duen aditz batez ordezkatzeara. Adb.:

- (13) *the white foam flew (36)*  
apar zuria aideratu (39)

Bideari buruzko informazioa beste hiru estrategiatan banatzen du Slobinek:

**P1 estrategia:** Bidea adierazten duen elementuren bat galtzea. Adb.:

- (14) *The upper air burst into life (80)*  
Goiko aidea bizitzaz lehertu zen (81)

**P2 estrategia:** Mugimenduzko aditz berri bat gehitzea, normalean Bidea adierazten duena. Adb.:

- (15) *Out of the sea came he! (14)*  
Itsasotik sortu eta helduz! (17)

**P3 estrategia:** Bideari buruzko informazio guztia itzultzea. Adb.:

- (16) *The moving Moon went up the sky (70)*  
Hilargi geldigaitza ortzean gora igotzen zen (70)

Moduari dagokionez, gaztelaniak eta euskarak antzera jokatzen dutela pentsa daiteke, eta gehienetan itzulpenetan ez dela Moduari buruzko informazio guztia gordeko; alegia, itzultzaileek M1 eta M3 estrategiak erabiliko dituztela oro har.

Bideari dagokionez, ordea, euskarak eta gaztelaniak ez dute berdin jokatzen. Lehen esan dugun bezala, gaztelaniak ez du Bideari buruzko informazioa satelite-hizkuntzek bezain xehe ematen, eta beraz askotan erabiliko ditu P1 eta P2 estrategiak. Euskarak, berriz, Bideari buruzko informazioa emateko ingelesaren antzera jokatzen duenez, sarri erabiliko du P3 estrategia.

Dena den, azterketa honetan itzultzaileak beste hainbat estrategia ere erabiltzen dituela ikusi dugu. Batetik, euskarazko mugimenduzko ekintzen Moduari dagokionez, Ibarretxe-Antuñanok bere artikulua batean (2003) aipatzen dituen estrategiak genituzke:

**M4 estrategia:** Modua adierazten duen aditz bat mugimenduzko beste aditz batez ordezkatzeara. Adb.:

- (17) *The ship drove fast (20)*  
Untzia arin zihoan (20)

**M5 estrategia:** Modua adierazten duen aditz bat mugimenduzkoa ez den aditz batez ordezkatzeara. Adb.:

- (18) *The ship suddenly sinketh (116)*  
Untzia batbatean hondatuko da (119)

**M6 estrategia:** Moduari buruzko informazioaren zati bat itzultzea. Estrategia hau ez da azaltzen hemen aztertutako itzulpenean. Hain zuzen ere aurkakoa gertatzen den kasuren bat ageri da, eta beraz M6 estrategia honako fenomeno hau izendatzeko erabiliko dugu: jatorrizkoan agertzen ez den Moduari buruzko informazioaren bat gehitzea. Adb.:

- (19) *this soul hath been Alone on a wide wide sea (134)*  
Ene arima hau Itsaso huts hutsean bakarrik ibili da (137)

**M7 estrategia:** Moduari buruzko informazioa beste mota bateko Moduarekin itzultzea. Adb.:

- (20) *To walk together to the kirk (134)*  
Elkarrekin elizaruntz paseatu (137)

Bestetik, Bideari dagokionez, beste lau estrategia topatu ditugu itzulpen honetan:

**P4 estrategia:** Bideari buruzko informazioa beste mota bateko Bidearekin itzultzea. Adb.:

- (21) *And on the right Went down into the sea (14)*  
eta eskuinaldetik Itzuli zen itsasoaren baitara (17)

**P5 estrategia:** Bideari buruzko aditz bat Moduari buruzko aditz batez ordezkatzeari. Adb.:

- (22) *and on the left Went down into the sea (32)*  
eta Ezkerraldetik murgiltzen zen itsasoan (35)

**P6 estrategia:** Bideari buruzko aditz bat galtzea. Adb.:

- (23) *and followeth the ship as it returned northward through fog and floating ice (26)*  
eta untxiari jarraitu zion ipar alderantza bidean, behelainotan eta uretako izotz arroken artetik (29)

**P7 estrategia:** Bideari buruzko aditz bat mugimenduzkoa ez den aditz batez ordezkatzeari. Adb.:

- (24) *The Sun now rose upon the right (32)*  
Eguzkiak orain eskuinaldetik argitzen zuen (35)

**P8 estrategia:** Jatorrizkoan agertzen ez den Bideari buruzko informazioaren bat gehitzea (dela aditza, dela osagarri bat). Adb.:

- (25) *Or we shall be belated (100)*  
Ala berandu ailegatuko gara (103)

Orain artean deskribatutako estrategiak Moduari eta Bideari dagozkie. Itzulpen honetan, ordea, Jarrerazko aditzak eta aditz Neutroak itzultzeko beste hainbat estrategia ere agertzen direla ohartu gara, eta garrantzitsua iruditu zaigu estrategia horiek modu sistematiko batean definitu eta sailkatzea, orain arteko ikerketetan ez baita Jarrerazko aditzak eta aditz Neutroak itzultzeko estrategiarik proposatu. Itzulpen honetan agertu direnak honela antolatu ditugu:

**Pos1 estrategia:** Jarrerari buruzko informazio guztia itzultzea, jarrera-aditza jarrera-aditzarekin itzuliz. Adb.:

- (26) *The Wedding Guest sat on a stone (14)*  
Ezteietara Gonbidatua harri gainean eseri da (17)

**Pos2 estrategia:** Jarrerari buruzko informazio guztia itzultzea, baina jarrerari buruzko aditz baten lekuan aditz neutro bat («egon» aditza) eta jarrera-osagarri bat ezarriz. Adb.:

- (27) *The dead men stood together (100)*  
Gizon hilak elkarrekin zeuden zutik (103)

**Pos3 estrategia:** Jarrerari buruzko aditz bat Bideari buruzko aditz batez ordezkatzeta. Adb.:

- (28) *The Wedding guest stood still (14)*  
Ezteietara gonbidatua geldi geratu da (17)

**Pos4 estrategia:** Jarrerari buruzko informazioa galtzea (aditza isildu delako edo aditz neutro bat sartu delako). Adb.:

- (29) *They stood as signals to the land (110)*  
Lurrarentzako zeinu gisa egondu ziren (113)

Azkenik, aditz neutroak nola itzuli diren aztertu dugu. Honako estrategia hauek aurkitu ditugu:

**N1 estrategia:** Aditz neutro bat aditz neutro batekin itzultzea. Adb.:

- (30) *Slowly and smoothly went the ship (86)*  
Untzia lehunki eta astiro zihoan (89)

**N2 estrategia:** Aditz neutro bat Moduari buruzko aditz batez ordezkatzeta. Adb.:

- (31) *Moved onward from beneath (86)*  
Aurreruntz azpitik bultzatua (89)

**N3 estrategia:** Aditz neutro bat Bideari buruzko aditz batez ordezkatzeta. Adb.:

- (32) *and the ship moves on (80)*  
eta untzia abiatu egin da (81)

**N4 estrategia:** Aditz neutro bat mugimenduzkoa ez den beste aditz batez ordezkatzeta. Adb.:

- (33) *His eyes went to and fro (122)*  
haren begiak alde batetik bestera aldatzen ziren aldiro (125)

Guztira, beraz, 23 estrategia definitu ditugu. Coleridge-ren ingelesezko poeman agertzen diren mugimenduzko ekintza guztiak eta beren euskarazko itzulpenak, beraz, estrategia horien arabera sailkatu ditugu. 2. taulan aurkezten dugu mugimenduzko ekintza bakoitzaren analisi xehea: aditzak ez ezik, aditzekin batera doazen sateliteak edo elementuak eta perpaus berean doazen osagaiak ere aztertu ditugu hizkuntza bakoitzean.

HIGIALDIAK INGELESEZ ( <i>orrialdea parentesi artean</i> )	HIGIALDIAK EUSKARAZ ( <i>orrialdea parentesi artean</i> )	ANALISIA INGELESEZ	ANALISIA EUSKARAZ	EMAITZA	ES TRA TE GIA
How a ship having first sailed to the Equator (8)	Lehendabizi Ekuatoreruntz nabegatu ondoren (9)	Manner verb + path compl	Manner verb + path compl	=	M2
was driven by storms to the cold Country towards the South (8)	itsasuntzia ekaitzek Hego Polo aldeko eskualdera eramán zuten (9)	Manner verb + path compl + path compl	Path verb + path compl	≠ verb ≠ number of path compl (omission)	M1 M3
he was followed by many and Judgments (8)	zigor ugari eta gogorrek oldartu zuten (9)	Path verb + Ø	Other verb + Ø	≠ verb	P7
and in what manner he came back to his own Country (8)	Eta nolabait bere Sorterrira itzuli zen (9)	Path verb (neutral verb + path satellite) + path compl	Path verb + path compl	=	P3
and detaineth one (10)	eta bat geldierazi zuen (13)	Path verb + Ø	Path verb + Ø	=	P3
And he stoppeth one of three (10)	Eta hiruretarik bat geldierazi zuen (13)	Path verb + Ø	Path verb + Ø	=	P3
Now wherefore stopp'st thou me? (10)	Zer dela eta geldierazi nauzu? (13)	Path verb + Ø	Path verb + Ø	=	P3
The Wedding guest stood still (14)	Ezteietara gonbidatua geldi geratu da (17)	Posture verb + manner compl	Path verb + manner compl	≠ verb	Pos3
The Wedding Guest sat on a stone (14)	Ezteietara Gonbidatua harri gainean eseri da (17)	Posture verb + ground compl	Posture verb + ground compl	=	Pos1
the ship sailed southward with a good wind and fair weather (14)	untziak aldeko haize eta eguraldi ederrarekin hegoalderuntz nabegatu zuela (17)	Manner verb + path compl	Manner verb + path compl	=	M2
till it reached the Line (14)	harik eta Ekuatorearen marrara ailegatu arte (17)	Path verb + path compl	Path verb + path compl	=	P3
Merrily did we drop Below the kirk, below the hill, Below the lighthouse top. (14)	Alai hasi ginen hurrintzen. Elizaren azpitik, muinoaren azpitik, Faro dorrearen azpitik... (17)	Path verb + 3 path compl	Diff path verb + 3 path compl	≠ path verb	P4
The Sun came up upon the left (14)	Eguzkia gure ezkeraldetik heldu zen (17)	Path verb (neutral verb + path satellite) + path compl	Path verb + path compl	=	P3
Out of the sea came he! (14)	Itsasotik sortu eta helduz! (17)	Path verb + path compl	Other verb + Path verb + path compl	≠ number of verbs (addition)	P2
and on the right Went down into the sea (14)	eta eskuinaldetik Itzuli zen itsasoaren baitara (17)	Path verb (neutral verb + path satellite) + path compl + path compl	Diff path verb + path compl + path compl	≠ path verb	P4
Higher and higher every day, Till over the mast at noon (14)	Egunetik egunera gorago igon zen, Harik eta eguerdiz mastaren gain gainean jarri arte (17)	Ø + path compl + path compl	Path verb + path verb + path compl + path compl	≠ number of verbs (addition)	P2
The bride hath paced into the hall (18)	Iadanik anderegaia salan dago (18)	Manner verb + path compl	Neutral verb + path compl	≠ verb	M1
Nodding their heads before her goes The merry minstrelsy (18)	Eta haren aurrean musikari alaiak Buruak makurtuz gortesiatan (18)	Neutral verb + path compl	Ø + path compl	≠ number of verbs (omission)	N4
The ship driven by a storm toward the south Pole (20)	Ekaitzak untzia Hego Poloruntz bultzatzen du (20)	Manner verb + path compl	Manner verb + path compl	=	M2

**2. taula. Coleridge-ren poeman eta Sarrionandiaren itzulpenean ageri diren mugimenduzko ekintzen analisisia eta itzulpen-estrategiak.**

And now the STORM-BLAST came (20)	Eta orduan galarrena heldu zen (20)	Path verb + Ø	Path verb + Ø	=	P3
And chased us south along (20)	Eta hegoalderuntz hurrindu ginen (20)	Manner verb + path compl	Path verb + path compl	≠ verb	M1
pursued with yell and blow (20)	Oihuz eta kolpez oldarturik (20)	Path verb + Ø	Other verb + Ø	≠ verb	P7
Still treads the shadow of his foe (20)	oraindik Etsaiaren gerizpea zapalduz doa (20)	Manner verb + Ø	Neutral verb + manner compl (verb - gerund)	=	M2
The ship drove fast (20)	Untzia arin zihoan (20)	Manner verb + manner compl	Neutral verb + manner compl	≠ verb	M4
And southward aye we fled (20)	Eta hegoalderuntz hurrindu ginen (20)	Manner verb + path compl	Path verb + path compl	≠ verb	M1
And now there came both mist and snow (22)	Eta orduan heldu ziren behelainoa eta elurra (22)	Path verb + Ø	Path verb + Ø	=	P3
And ice, mast-high, came floating by [...] (22)	Eta uretan masten alturako izotza [...] heltzen zen (22)	Path verb + manner compl (verb - gerund)	Path verb + ground compl	≠ compl (manner → ground)	M1
a great sea bird [...] came through the snow-fog (26)	itsas xori handi bat [...] elur behelaino artetik heldu zen (29)	Path verb + path compl	Path verb + path compl	=	P3
At length did cross an Albatross (26)	Azkenean Albatro bat agertu zen (29)	Path verb + Ø	Other verb + Ø	≠ verb	P7
Thorough the fog it came (26)	Behelainoan zehar heldu zen (29)	Path verb + path compl	Path verb + path compl	=	P3
And round and round it flew (26)	Eta hegatsez egin zuen inguru biraka (29)	Manner verb + path compl	Manner verb (manner elem + neutral verb) + path compl	=	M2
The helmsman steered us through (26)	Lemazainak atera ginduen handik (29)	Manner verb + path compl	Path verb + path compl	≠ verb	M1
and followeth the ship as it returned northward through fog and floating ice (26)	eta untxiari jarraitu zion ipar alderantza bidean, behelainotan eta uretako izotz arroken artetik (29)	Path verb + path compl + path compl	Path verb + path compl + path compl	≠ number of verbs (omission) ≠ number of compl (addition)	P6
And a good south wind sprung up behind (26)	Eta popatik hegoaize on bat heldu zen (29)	Manner verb (manner verb + path satellite) + path compl	Path verb + path compl	≠ verb	M1
The Albatross did follow (26)	Albatroak jarraitu ginduen (29)	Path verb + Ø	Path verb + Ø	=	P3
Came to the mariners' hollo (26)	Marinelen deira etortzen zen (29)	Path verb + path compl	Path verb + path compl	=	P3
In mist or cloud, on mast or shroud, It perched for vespers nine (26)	Behelainoz edo goilainoz, masta edo soka gainetan Bederatzi bezperatan pausatu zen (29)	Posture verb + path compl + path compl	Posture verb + path compl + path compl	=	Pos1
The Sun now rose upon the right (32)	Eguzkiak orain eskuinaldetik argitzen zuen (35)	Path verb + path compl	Other verb + path compl	≠ verb	P7
Out of the sea came he (32)	Itsasotik altzatzen zen (35)	Path verb + path compl	Diff path verb + path compl	≠ path verb	P4
and on the left	eta	Path verb (neutral verb + path satellite)	Manner verb + path compl + path compl	≠ verb	P5
Went down into the sea (32)	Ezkerraldeetik murgiltzen zen itsasoan (35)	path compl + path compl	path compl		
And the good south wind still blew behind (32)	Eta hegoaize onak jotzen zuen oraindik popatik (35)	Manner verb + path compl	Other verb + path compl	≠ verb	M5
But no sweet bird did follow (32)	Baina xori onak ez ginduen segitzen (35)	Path verb + Ø	Path verb + Ø	=	P3
Nor any day for food or play	Egundo ez zen ez jateko ez jolasteko	Path verb + path compl	Path verb + path compl	=	P3
Came to the mariners' hollo (32)	Marinelen deira etortzen (35)				
the bird	Brisara bultzatzen zuen	Manner verb (neutral verb + manner infinitive) + Ø	Diff. manner verb + Ø	≠ manner verb	M7
That made the breeze to blow (32)	xoria (35)				

## 2. taula. Jarraipena.

the bird to slay, That made the breeze to blow (32)	Brisara bultzatzen duen xoria hil (35)	Manner verb (neutral verb + manner infinitive) + Ø	Diff. manner verb + Ø	≠ manner verb	M7
The glorious Sun uprist (36)	Eguzkia loriatsu jeikitzen zen (39)	Path verb + Ø	Path verb + Ø	=	P3
the bird That brought the fog and mist (36)	Behelainoa eta gurma zekarren xoria (39)	Path verb + Ø	Path verb + Ø	=	P3
such birds to slay, That bring the fog and mist (36)	Behelainoa eta gurma dakarten xoriak hiltzea (39)	Path verb + Ø	Path verb + Ø	=	P3
the ship enters the Pacific Ocean (36)	untzia Ozeano Pazifikokoan sartu da (39)	Path verb + path compl	Path verb + path compl	=	P3
and sails northward (36)	ipar alderuntz nabegatuz, (39)	Manner verb + path compl	Manner verb + path compl	=	M2
even till it reaches the Line (36)	harik eta Ekuatore Marrara ailegatu	Path verb + path compl	Path verb + path compl	=	P3
